

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO

# ESKOLA EKOBAROMETROA 2016



**Argitaratzen du:** Ingurugela

**Egileak:** Miren Agirreazkuenaga Zigorraga  
Ángel Cantera Sevilla  
José Manuel Gutiérrez Bastida  
Joseba Martínez Huerta

2017ko apirila

**Gure esker ona adierazi nahi diegu Alfonso Caño Reyero-ri eta Eduardo Ubieta Muñuzuri-ri, baita ere Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakunde (ISEI-IVEI) osoari. Beraien laguntza oso baliotsua izan da Ekobarometro hau egiteko.**

# Aurkibidea

<b><u>Aurkezpena</u></b>	<b><u>4</u></b>
<b><u>Adierazleak eta azpiadierazleak</u></b>	<b><u>6</u></b>
<b><u>Lortutako emaitzak</u></b>	<b><u>8</u></b>
• <b><u>1. ardatza: Hezkuntza-sistema</u></b>	<b><u>8</u></b>
<b><u>1. adierazlea. Jasangarritasunerako hezkuntza-programak</u></b>	<b><u>8</u></b>
<b><u>2. adierazlea. Irakasleen prestakuntza jasangarritasunerako hezkuntzan</u></b>	<b><u>19</u></b>
<b><u>3. adierazlea. Erabilitako baliabide nagusiak</u></b>	<b><u>24</u></b>
• <b><u>2. ardatza: Ikasleen gaitasunak</u></b>	<b><u>28</u></b>
<b><u>4. adierazlea. Ikasleen kompetentziak</u></b>	<b><u>29</u></b>
<b><u>5. adierazlea. Ikasleen iritziak</u></b>	<b><u>32</u></b>
<b><u>Ondorioak</u></b>	<b><u>40</u></b>
<b><u>Laburbilduz...</u></b>	<b><u>44</u></b>

## Aurkezpena

Eskola Ekobarometroa ebaluazio bat da, eta, adierazleen bidez, eskolaren eta jasangarritasunaren arteko elkarrekintza aztertzen eta harreman horren bilakaeraren berri ematen saiatzen da aldizkako txostenen bidez.

2008an<sup>1</sup> egindako Eskola Ekobarometroaren lehen txostenean tresna bera definitu zen, baita erabiltzeko alderdi metodologikoak eta adierazleak ere. Hasiera batean ezarritako aldizkotasunaren arabera, bigarren txostena 2012an argitaratu behar zen, baina ez zen egin. Beste txosten bat egin beharra ikusten zen, baina beharrezkoa zen 2008an erabilitako eskema berriz planteatzea. Horregatik, Eskola Ekobarometro berriaren ikuspegiari buruzko hausnarketa-prozesu bat hasi zen, ondoren, egitea errazteko.

Hiru **helburu** nagusi ezarri ziren:

### 1. Jasangarritasuna hezkuntza-sisteman zein mailatan integratu den neurtzea.

- ✓ Jasangarritasunerako hezkuntzarako sistemak **erabili dituen baliabideak** ezagutzea.
- ✓ **Baliabideen erabileraren eraginkortasuna** neurtzea, egindako inbertsioaren eta lortutako inpaktuaren arteko erlazioa ezartzen duten adierazleen bidez (gaitasunak).
- ✓ Ikastetxeek egindako jasangarritasunerako hezkuntzarako **proiektuak ezagutzea**.

### 2. Jasangarritasunerako hezkuntzarako politiken inpaktua neurtzea:

- ✓ Ikasleek jasangarritasunaren arloan bereganatutako gaitasunak neurtzea.
- ✓ Jasangarritasunerako hezkuntzaren helburuen faktore eragileak antzematea, erabili ahal izateko.
- ✓ Jasangarritasunerako hezkuntzaren garapenerako galga edo oztopoei antzematea eta horiek neutralizatzeko estrategiak bilatzea.
- ✓ Gaitasunak bereganatzeko prozesuan Eskola Agenda 21 programak duen inpaktua ezagutzea.

### 3. Neurtzeko sistema estandarizatu bat sortzea, Ekobarometroaren eredu bat finkatzea:

- ✓ Ekobarometroaren edizio honetan eta etorkizunekoetan erabiltzeko iturrien zerrenda definitzea. Baliozkoak eta jasangarriak diren iturriak identifikatzea.
- ✓ EAEko hezkuntza-sistemaren jasangarritasunerako hezkuntzaren egoerari eta bilakaerari buruz interesgarriak diren aldagaiak eta adierazleak hautatzea.

Halaber, iritzi zen Ekobarometroak eredu bat neurtzea eta finkatzea ez diren helburu osagarri batzuk ere bildu behar dituela:

- Hezkuntza-sisteman jasangarritasunerako hezkuntzaren integrazioa optimizatzeko jarduteko proposamenak egitea.
- Gaiaren egoera eta jasangarritasunerako hezkuntza hobetzeko administrazioaren proposamenak hezkuntza-komunitateari jakinaraztea.

<sup>1</sup> EAEko 2008ko Eskola Ekobarometroa hemen eskuratu daiteke:

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig\\_publicaciones\\_innovacion/eu\\_edu\\_amb/adjuntos/800012e\\_euskal\\_ekobarometro\\_2008\\_e.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_edu_amb/adjuntos/800012e_euskal_ekobarometro_2008_e.pdf)

- Etorkizunari begira, jasangarritasunerako hezkuntzaren inpaktua modu globalean neurtzeko aukera planteatu zen, hezkuntza-sistemaz haratago: ikasleak, baina baita irakasleak, familiak edo udalak ere, besteak beste.

Kontuan hartuta orain aurkeztu dugun **Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Ekobarometroa 2016**ko informazioaren zati bat aldeztetik ezarritako irizpideen arabera bildu zela, oraingo txostena lehen txostenaren eta etorkizunerako zehaztutako ereduaren arteko trantsizioa da. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Ekobarometroa 2016k batez ere 2008-2016ko aldiari dagokion informazioa bildu eta aztertzen du. Nolanahi ere, txosten bereziak diren arren, uste dugu interesgarria dela ikuspegi historikoa izatea. Hortaz, eskuragarri dagoen informazioak ahalbidetzen duenean, sail historikoa eskaintzen da hasieratik (2003-2004 ikasturtea), egon den bilakaera jakiteko.



## Adierazleak eta azpiadierazleak

2008ko Ekobarometroan zehaztutako adierazleak kontuan hartu ditugu. Hala ere, adierazi dugun bezala, aldaketa batzuk egin behar izan ditugu eskuragarri dagoen informazioagatik. Informazio hori laburtu egin dugu.

### 1. ardatza: Hezkuntza-sistema

**1. adierazlearen** barruan (jasangarritasunerako hezkuntzaren proiektuak) azpiadierazleak sortu dira:

- *1.1 Eskola jasangarriaren agiria duten ikastetxeak*, errealitate hori kontuan hartzeko, ez baitzen lehen txostenean agertzen.
- *1.2. Ikastetxeetan jorratutako beste ekimen batzuk*, ikastetxeetan egiten diren beste proiektu eta jarduera batzuei leku emateko.

**3. adierazlea** (jasangarritasunerako hezkuntzarako erabilitako aurrekontua) berriz formulatu da, eta horrela dago definituta: Jasangarritasunerako hezkuntzarako erabilitako baliabideak. Halaber, bi azpiadierazle ezarri dira:

3.1. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak jasangarritasunerako hezkuntzarako proiektuak egiteko emandako diru-laguntzak.

3.2. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak jasangarritasunerako hezkuntza garatzeko esleitutako irakasleak.

**4. adierazlea** (Ingurugelarekiko harremana) ez da **2016ko Ekobarometroan** agertzen ez dugulako behar adina informaziorik. Argitu behar da informazio hori inkesta baten bidez lortzen zela, eta edizio honetan, aurrekontuarekin lotutako arrazoiengatik, ezin izan da egin.

### 2. ardatza: Hezkuntza-komunitatea

Ardatz hau ez da 2016ko Ekobarometroan agertzen ez dugulako behar adina informaziorik. Ardatz honen helburua hezkuntza-komunitatearen estamentuen pertzepzioa ezagutzea zen, jasangarritasunari eta ikastetxeak arlo horretan laguntzeari dagokienez. Ardatz honetarako informazio-iturria aurrez aipatutako inkesta zen.

### 3. ardatza: Ikasleen gaitasunak

Ardatz honen informazio-iturria aldatu da. Lehenengo txostenean PISA probatik lortutako datuak erabili ziren, eta txosten honetan 2013ko Ebaluazio Diagnostikoaren probatik lortu dira. Horrela, adierazle eta azpiadierazle berriak zehaztu dira (ikus diseinua eranskinean).

Hori guztia kontuan hartuta, txosten honetan jarraian adierazitako ardatzak, adierazleak eta azpiadierazleak ezarri dira:

## 1. ARDATZA: Hezkuntza-sistema

1. Jasangarritasunerako hezkuntza-programak.
  - 1.1. **Eskola Agenda 21 programa.**
    - 1.1.1. EA21 hezkuntza-proiektua duten ikastetxeak.  
Eskola jasangarriaren agiria duten ikastetxeak.
    - 1.1.2. EA21en parte hartzen duten irakasleak.
    - 1.1.3. EA21en parte hartzen duten ikasleak.
  - 1.2. Ikastetxeetan jorrotutako beste ekimen batzuk.
    - 1.2.1. **Aztertu programan** parte hartzen duten ikastetxe eta ikasleak.
    - 1.2.2. **Arrano arrantzalearen programan** parte hartzen duten ikastetxe eta ikasleak.
2. Irakasleen prestakuntza jasangarritasunerako hezkuntzan.
  - 2.1. Irakasleen prestakuntza-jarduerak jasangarritasunerako hezkuntzan.
  - 2.2. Irakasleen prestakuntza-orduak jasangarritasunerako hezkuntzan.
  - 2.3. Jasangarritasunerako hezkuntzako ikastaroetan parte hartu duten irakasle-kopurua.
  - 2.4. Jasangarritasunerako hezkuntzaren inguruan jasotako prestakuntzaren balorazioa
3. Jasangarritasunerako hezkuntzarako erabilitako baliabideak.
  - 3.1. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak emandako diru-laguntzak.
  - 3.2. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak jasangarritasunerako hezkuntza garatzeko esleitutako irakasleak.

## 2. ARDATZA: Ikasleen konpetentziak

4. Ikasleen konpetentziak
  - 4.1. Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako konpetentzia.
  - 4.2. Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.
  - 4.3. "Jasangarritasunerako konpetentzia".
5. Ikasleen iritziak
  - 5.1. Ingurumen-arazoen ezagutza-maila.
  - 5.2. Ikasleek ingurumenaren alde egindako ekintzak.
  - 5.3. Ikastetxean ingurumenaren alde egindako ekintzak.



# JASOTAKO EMAITZAK

## 1. ARDATZA: HEZKUNTZA SISTEMA

### 1. adierazlea. Jasangarritasunerako hezkuntza-programak

Gaur egun, Eskola Agenda 21 da ikastetxeetan JH (jasangarritasunerako hezkuntza) lantzeko dagoen programa nagusia; honen bidez, haren bilakaeraren jarraipena egin nahi da unibertsitate-mailakoak ez diren EAeko ikastetxeetan. Horrez aparte, aipatzekoak iruditu zaizkigu JH sustatzeko helburuarekin bat datozen beste hainbat ekimen. Horietatik, “Aztertu” eta “Arrano arrantzalearen proiektua” baino ez ditugu kontuan izan, hauetatik bakarrik ditugulako datu fidagarriak.

#### 1.1. Azpiadierazlea. Eskola Agenda 21 programa

Eskola Agenda 21 programa garatzeko, araututako diru-laguntza jasotzen duten ikastetxeak hartzen dira kontuan, eta baita programaren barnean parte hartzen duten irakasle eta ikasle kopurua ere.

2003-2004 ikasturteetik, EA21 programarako deialdia, urtero egiten dute elkarrekin Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak. Programa hau, orain arte erreferentzia nagusi bilakatu da jasangarritasunerako hezkuntzaren proiektu guztien artean.

##### 1.1.1. EA21 hezkuntza-proiektua duten zentroak

**Azpiadierazlearen definizioa:** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak onartutako Eskola Agenda 21 proiektuan parte hartzen duten ikastetxeen ehunekoa.






**1. Taula. 2008-2016. Eskola Agenda 21 programa duten ikastetxeen kopurua.**

	08-09	09-10	10-11	11-12	12-13	13-14	14-15	15-16
EA21 programa duten eskola kopurua	465	464	474	472	465	460	448	447
Derrigorrezko Hezkuntzako etaparen bat duten ikastetxe kopurua	678	680	672	670	672	666	667	707 <sup>2</sup>
%	68,5	68,2	70,5	70,4	69,1	69	67,1	63,2


Derrigorrezko Hezkuntzako etaparen bat duten ikastetxe kopurua hezkuntza-sistema buruzko estatistiketatik jaso da: <http://www.hezkuntza.ejgv.eusk333adi.eus/hezkuntza-estatistikak/> (Irakaskuntza ez unibertsitarioetako datuak). Bertan, honako hauek izan ditugu kontuan: Lehen Mailako Hezkuntza, Lehen Mailako Hezkuntza eta DBH, eta DBH edo Batxilergoa edo Lanbide Heziketa dutenek, 2008ko ekobarometroan ere, horiek izan zirelako kontuan hartu zirenak. Beraz, bigarren ekobarometro honetan jarraipena ematea erabaki da.

**1. grafikoa. Eskola Agenda 21 proiektua duten ikastetxe kopurua**



<sup>2</sup> 2015-2016 ikasturtean, Hezkuntza saileko estatistiketan, Derrigorrezko Hezkuntzako etaparen bat duten ikastetxeen kopuruan, OLH-HLPP ikastetxe espezifikoak gehitu dira. Hori dela eta, ikastetxe kopurua nabarmen igo dela ikus daiteke (40 ikastetxe gehiago); beraz, eragin nabarmena du EA21 programan parte hartzen duten ikastetxeen ehunekoan.

2.grafikoa. *Eskola Agenda 21* proiektuan parte hartzen duten zentroyen ehunekoa, ikasturteko.



Aurrez seinalatu den moduan, 2015-2016 ikasturtean, Hezkuntza Saileko estatistiketan, Derrigorrezko Hezkuntzako etaparen bat duten ikastetxeen kopuruan, OLH-HLPP ikastetxe espezifikoak gehitu dira. Hori dela eta, ikastetxe kopurua nabarmen igo da, eta eragin nabarmena du EA21 programan parte hartzen duten ikastetxeen ehunekoan.

- **“Eskola jasangarriak”**


**Azpiadierazlearen definizioa:** *Eskola Agenda 21* programa izan eta “Eskola jasangarriaren” agiria lortu duten ikastetxeen ehunekoa.

“Eskola jasangarria”ren agiria izateko, ikastetxeek “ikuskapen” bat igaro behar dute. Horretarako, gutxienez bost urtetan Eskola Agenda 21 programan parte hartzea derrigorrezkoa da, bestalde, agiri hau hiru urtetarako da, hau da, ez bada berritzen galdu egiten da.


2.taula: 2008-2016. *Eskola Agenda 21* proiektua izan eta “Eskola jasangarriak” direnak.

	08-09	09-10	10-11	11-12	12-13	13-14	14-15	15-16
EA21en	465	464	474	472	465	460	448	447
“Eskola jasangarriak”	38	61	78	77	77	89	88	94
%	8,17	13,14	16,45	16,31	16,55	19,34	19,64	20,98

3.grafikoa: *Ikasturte bakoitzean eskola jasangarriaren agiria duten ikastetxeen kopurua.*



4. grafikoa: *Eskola Agenda 21 programa izan eta "Eskola jasangarriaren" agiria lortu duten ikastetxeen ehunekoa.*



#### 1.1.2. Eskola Agenda 21 proiektuan parte hartzen duten irakasleak.

**Azpiadierazlearen definizioa:** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak onartutako Eskola Agenda 21 proiektuan parte hartzen duten irakasleen ehunekoa.

3. taula. EA21 proiektuetan parte hartzen duten irakasleen ehunekoa.


EA21 PROIEKTUETAN IRAKASLEAK (%), KOPURU GUZTIAREKIKO								
	08-09	09-10	10-11	11-12	12-13	13-14	14-15	15-16
EA21en	17.360	17.953	18.578	18.939	Datu barik	Datu barik	Datu barik	28.474
GUZTIRA(*)	32848	33670	35093	35.783	35.524	36.231	36.778	Datu barik
%	52,8	53,3	52,9	52,9				

(\*) Guztira dagoen irakaslego kopurua Hezkuntza-sistema buruzko estatistiketatik jasota. <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/hezkuntza-estatistikak/>. Bertan, kasu honetan, irakaslego guztia kontuan hartu da: Haur-Lehen Hezkuntza, Bigarren hezkuntza, helduen hezkuntza eta klaserik ematen ez dutenak. Izan ere, **2008ko Ekobarometroan** horiek izan ziren kontuan hartu zirenak. Beraz, datuen jarraipena egin da.


Ikasturte batzuetako datuak ez dira aurkitu eta 2015-2016 ikasturteko EAEko irakasle kopurua ez dago oraindik argitaratuta.



5.grafikoa. EA21 proiektuan parte hartzen duten irakasleen kopurua.



6. grafikoa. EA21 proiektuetan parte hartzen duten irakasleen ehunekoa, irakasle guztiekiko.



1.1.3. Eskola Agenda 21 proiektuan parte hartzen duten ikasleak

**Azpiadierazlearen definizioa:** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak onartutako Eskola Agenda 21 programan parte hartzen duten ikasleen ehunekoa.

4. taula: EA21 proiektuan parte hartzen duten ikasleen ehunekoa, EAeko ikasle-kopuru guztiarekiko.


	08-09	09-10	10-11	11-12	12-13	13-14	14-15	15-16
EA21en ikasleak guztira	183.460	194.801	200.231	201.092	218.937	213.375	210.102	225.812
EAeko ikasleak guztira(*)	356180	369287	377.121	383.654	391.086	394.921	398.663	400.131
%	51,5	52,7	53	52,4	55,9	54,02	52,7	56,43

(\*) Hezkuntza-sistema buruzko estatistikak.


<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/hezkuntza-estatistikak/> oinarri hartuta, Euskadin guztira (Haur hezkuntza, lehen mailako hezkuntza, DBH, hezkuntza berezia, helduen hezkuntza eta lanbide heziketa) dagoen ikasle kopurua kontuan izan da.

hartzen duten ikasle kopuruan, informazio iturri desberdinak hartu dira kontuan, eta hauen artean aldaketa txiki batzuk egon daitezke.

7. grafikoa. EA21en parte hartzen duten ikasleen kopurua.



8. grafikoa. EA21 proiektuan parte hartzen duten ikasleen ehunekoa, EAEko ikasle-kopuru guztiarekiko.




Jarraian, hezkuntzako etapa desberdinetan programa nola ezarri den ikus daiteke:

5. taula. **EA21 programan parte hartzen duen ikasle-kopurua, hezkuntza-etapa bakoitzeko.**

Kasu honetan, 2012-2013 ikasturtetik aurrerako datuak baino ez dira lortu.

Hezkuntza etapa	HH	LMH	DBH	BATX	BESTE	GUZTIRA
12-13	46.780	77.402	57.551	17.212	19.992	218.937
13-14	45.061	71.778	56.897	18.808	20.831	213.375
14-15	41.613	72.553	57.217	18.635	20.084	210.102
15-16	41.091	77.312	63.571	20.173	23.046	225.193

9. grafikoa. **EA21 proiektuan parte hartzen duten ikasleak etapaka eta ikasturteka banatuta.**





## 1.2. Azpiadierazlea. Jasangarritasunerako hezkuntzan ikastetxeen beste hainbat ekimen

Azpiadierazle hau berria da ekobarometro honetan, gaur egun egiten diren beste proiektu edo ekimenak kontuan izateko, hauek ere JHn duten garrantzia dela eta. Kasu honetan, duela 25 urte hasitako “Aztertu” kanpaina eta “arrano arrantzalearen” proiektua baino ez ditugu kontuan izan. Alde honetatik, aipatu beharra dago beste hainbat ekimen jorratzen direla ikastetxeetan, hala nola eskola baratzea, baina datu esanguratsurik ez dugunez, ez dugu adierazi ekobarometro honetan. Ikasturte honetan hasiko gara datu zehatzak biltzen.

**Azpiadierazlearen definizioa:** *Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak jasangarritasunerako hezkuntza bultzatzeko programetan parte hartzen duten ikastetxe eta ikasle kopurua.*




### 1.2.1. Aztertu programan parte hartzen duten ikastetxeak eta ikasleak

6.taula. 2008-2016. Aztertu kanpainan parte hartu duten ikastetxe eta ikasle kopurua


	IKASTETXE KOPURUA							
	08-09	09-10	10-11	11-12	12-13	13-14	14-15	15-16
Azterkosta	32	46	55	66	59	51	55	55
Ibaialde	70	73	77	78	78	79	77	73
GUZTIRA	102	111	132	144	137	130	132	128
	IKASLE KOPURUA							
Azterkosta	979	2731	2746	2963	2783	2455	2857	2882
Ibaialde	3250	3362	3098	2679	2918	3286	2934	3216
GUZTIRA	4229	6093	5844	5642	5701	5741	5791	6098

Esan beharra dago datu hauetan, kanpaina bakoitzean, laginketan, parte hartu duten ikastetxe eta ikasleak hartu direla kontuan (lehiaketak, txotxongiloak, erakusketak ez dira kontuan izan).

10. grafikoa. *Ikastetxe kopurua Azterkosta eta Ibaialde, Aztertu programan*



11. grafikoa. *Ikasle kopurua Azterkosta Ibaialde.*



### 1.2.2. “Arrano arrantzalean” parte hartu duten ikastetxe, irakasle eta ikasle kopurua

Proiektu hau duela bi ikasturte hasi zen; beraz, bi urte horietako datuak baino ez ditugu. Dena den, esan beharra dago hemen parte hartzeko plaza mugatuak direla eta bi urteetan eskaintako plazak bete egin direla.

7. taula. “Arrano arrantzalearen” proiektuan parte hartu duten ikasle eta irakasle kopurua.

		Ikasle kopurua	Irakasle kopurua
2014-2015	Urdaibai Bird Center	842	50
	Ekoetxea de Txingudi	407	25
	<b>GUZTIRA:</b>	<b>1.249</b>	<b>75</b>
2015-2016	Urdaibai Bird Center	1.303	60
	Ekoetxea de Txingudi	421	24
	Conferencias escolares Urdaibai	500	25
	<b>GUZTIRA:</b>	<b>2.224</b>	<b>109</b>



## 2. adierazlea. Irakasleen prestakuntza jasangarritasunerako hezkuntzan

Jasangarritasunerako hezkuntzaren alorrean unibertsitatekoak ez diren irakasleen prestakuntza-egoera zein den erakutsi nahi da adierazle honen bidez; izan ere, irakasleak eragile biderkatzaileak dira, eta berebiziko garrantzia dute JH hezkuntza-sisteman garatzeko.

### 2.1. Irakasleen prestakuntza-jarduerak jasangarritasunerako hezkuntzan.

**Azpiadierazlearen definizioa:** *irakasleek jasangarritasunerako hezkuntzan trebatzeko Ingurugelak emandako jarduera-kopurua, jarduera-motaren arabera.*


Ingurugelak emandako ikastaroei buruzko datuak soilik adierazten dira, gainerako prestakuntza-jarduerari buruzko informazio fidagarririk ez baitugu. Zenbatutako ikastaroen artean, honako hauek hartu dira kontuan:

- IKASTETXEKO klaustroetan emandako prestakuntzak.
- ESKUALDEKO IKASTAROAK: gehienbat Eskola Agenda 21 programako koordinatzaileen prestakuntza-beharrei erantzuteko. Ez dira Prest\_gara programakoak, baina hauek ere badute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren babesa.
- PREST\_GARA: Hezkuntza Saileko etengabeko prestakuntzarako GARATU/PREST\_GARA programa izenekoaren (presentzialak eta “on line”) baitan emandakoak.


8.taula. *Irakasleek Jasangarritasunerako hezkuntzan prestatzeko izan duten jarduera-kopurua.*

	08-09	09-10	10-11	11-12	12-13	13-14	14-15	15-16
IKASTETXEAN	32	46	33	31	29	21	37	43
ESKUALDEKOA	27	27	16	17	17	26	42	36
PREST_GARA	20	17	17	26	14	14	12	10
GUZTIRA	79	90	66	74	60	61	91	89

12. grafikoa. : *Eskainitako prestakuntza kopurua jarduera motaren arabera.*



13. grafikoa: *Guztira irakasleek jasangarritasunerako hezkuntzan prestatzeko jarduera-kopurua.*



## 2.2. Irakasleen prestakuntza-orduak jasangarritasunerako hezkuntzan.

**Azpiadierazlearen definizioa:** *irakasleek jasangarritasunerako hezkuntzan prestatzeko Ingurugelak emandako prestakuntza-orduak.*

Azpiadierazle honetan Ingurugelak eman edo antolatutako ikastaroei buruzko datuak baino ez dira adierazten. Alde batetik, ikastetxeko klaustroetan emandako prestakuntza, eskualdeetako ikastaroak eta Hezkuntza Sailarekin batera antolatutako PREST\_GARA (lehenago GARATU) ikastaroak.


Hemen ere, ikastaroak hiru taldetan banatu ditugu, hartzailearen arabera:

- IKASTETXEAN klaustroetan emandako prestakuntzak.
- ESKUALDEKO IKASTAROAK: gehienbat Eskola Agenda 21 programako koordinatzaileen prestakuntza-beharrei erantzuteko. Ez dira PREST\_GARA programakoak, baina hauek ere badute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren babesa.
- PREST\_GARA: Hezkuntza Saileko etengabeko prestakuntzarako GARATU/PREST\_GARA programa izenekoaren (batzuk presentzialak, baina gehienbat “on line”) baitan emandakoak.


9. taula. *Irakasleen prestakuntza-orduak jasangarritasunerako hezkuntzan.*

	08-09	09-10	10-11	11-12	12-13	13-14	14-15	15-16
IKASTETXEKOAK	72	132	44	60	64	36	32	106
ESKUALDEA	123	128	115	133	118	113	128	120
PREST GARA	620	480	380	450	370	380	310	300
GUZTIRA	815	740	539	643	552	529	470	526

14. grafikoa. *Irakasleen prestakuntza-orduak jasangarritasunerako hezkuntzan.*



15. grafikoa: Irakasleen prestakuntza-orduak, guztira.




### 2. 3. Jasangarritasunerako hezkuntzako ikastaroetan parte hartu duten irakasleak.

**Azpiadierazlearen definizioa:** Ingurugelak jasangarritasunerako hezkuntzaren inguruan emandako prestakuntza-ikastaroetan parte hartu duen irakasle-kopurua.

10. taula. Jasangarritasunerako hezkuntzako ikastaroetan parte hartu duten irakasle kopurua.


	08-09	09-10	10-11	11-12	12-13	13-14	14-15	15-16
IKASTETXEAN	630	1181	1110	779	781	550	296	746
ESKUALDEA	242	494	359	279	294	501	863	584
PREST GARA	363	296	325	272	228	191	133	160
<b>GUZTIRA</b>	<b>1235</b>	<b>1971</b>	<b>1794</b>	<b>1330</b>	<b>1303</b>	<b>1242</b>	<b>1292</b>	<b>1490</b>

16. grafikoa. Ingurumen-hezkuntzako ikastaroetan parte hartu duten irakasle kopurua.





17.grafikoa. **Jasangarritasunerako hezkuntzako ikastaroetan parte hartu duten irakasleak, guztira.**



**2.4. Jasangarritasunerako hezkuntzaren inguruan jasotako prestakuntzaren balioespena.**

**Azpiadierazlearen definizioa:** Jasangarritasunerako hezkuntzako prestakuntza-ikastaroetan parte hartu duten irakasleek egindako balioespena, 1etik 5era bitarteko eskalan.

11. taula. **Jasangarritasunerako hezkuntzako prestakuntza-ikastaroei buruzko balioespena.**

	08-09	09-10	10-11	11-12	12-13	13-14	14-15	15-16
PREST_GARA	4,01	3,99	4,3	3,95	4,11	4,06	4,08	4,15
PREST_GARA ez direnak		4,26	4,18	4,41	4,22			
ESKUALDEKOAK						4,28	4,10	4,5
IKASTETXEKOAK						4,2	4,22	4,25

Balorazio hauetan memorietan zenbatuta dauden balorazioen batezbestekoa egin da. (ikastaro batzuenak ez dira agertzen). Bestalde, taulan ikusten den moduan 2013-2014 ikasturtetik aurrera PREST-GARAKoak ez diren ikastaroak bi taldetan banatu dira “Eskualdekoak” eta “ikastetxeetakoak”.



### 3. adierazlea. Jasangarritasunerako hezkuntzarako erabilitako baliabide nagusiak

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Ingurumen Sailak dute Ingurumen Hezkuntzaren inguruko eskumena EAEn, bai hezkuntza-sisteman eta bai gizartean orokorrean. Jasangarritasunerako hezkuntza garatzeko propio erabiltzen den aurrekontuak eragin handia du, nahiz eta ez izan faktore bakarra. Adierazle horren bidez, Ingurumen Sailak emandako diru kopuruaren bilakaera eta Hezkuntza Sailak jasangarritasun hezkuntza garatzeko esleitutako pertsona kopuruaren bilakaera aztertu nahi da.

#### 3.1. Ingurumen Sailak emandako diru kopurua.

**Azpiadierazlearen definizioa:** *Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak emandako diru kopurua.*


Kasu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitatekoak ez diren ikastetxeei EA21 programa garatzeko emandako diru-laguntzak adieraziko ditugu, eta baita udalerriei ematen zaien tokiko Agenda21erako diru-laguntzak ere, Eskola Agenda 21 programarako erabiltzen dena, batik bat. Bestalde, Aztertu kanpainarako eta "IHITZA" aldizkarirako urtero ematen dena ere kontuan izan da.

12. taula. *Ingurumen sailak emandako diru laguntza..*

	08-09	09-10	10-11	11-12	12-13	13-14	14-15	15-16
Eskola agenda 21 erako diru laguntza	1.050.000	1.150.000	1.100.000	1.100.000	1.000.000	750.000	600.000	600.000
Tokiko Agenda 21n, eskola agendak duen atalerako diru laguntza	440.000	700.000	600.000	300.000	0	200.000	160.000	160.000

Aurrekontuak	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Aztertu programa	189.909	235.000	275.368	249.373	249.373	255.713	255.712	249.374	255.000
Ihitzza	62.274	42.420	52.200	29.500	50.180	34.304	20.000	25.000	17.847

18. grafikoa. Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak EA21 programa garatzeko ikastetxeei emandako diru kopurua.



### 3.2. Hezkuntza Sailak Jasangarritasunerako hezkuntzarako esleitutako pertsonala.

**Azpiadierazlearen definizioa:** *Hezkuntza Sistemak jasangarritasunerako hezkuntza garatzeko esleitutako pertsona kopurua.*

Kasu honetan, Ingurugeletako aholkulariak, Ingurugelan ikasketa lizentziarekin zeuden irakasleak, Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Zentroan (SESZ) dauden irakasleak eta Bigarren hezkuntzako ikastetxe publikoetan Eskola Agenda 21eko koordinatzaileei emandako liberazio orduak izan dira kontuan.




13.taula. **Hezkuntza Sailak esleitutako pertsona kopurua.**

	08-09	09-10	10-11	11-12	12-13	13-14	14-15	15-16
Ingurugela: aholkulariak	15	15	15	15	15	15	15	15
Ingurugela: ikerketa lizentzia pertsonak	4	0	0	0	0	0	0	0
Sukarrietako irakasleak	12	12	12	12	12	10	10	10
EA21 programarako Bigarren Hezkuntzan ordu liberazioa dituzten irakasleak *	40	40	43	39	23	21	22	22
<b>GUZTIRA</b>	71	67	70	66	50	46	47	47


\*Hauek ez dira pertsona fisikoak, liberazio orduak irakasle kopuru bihurtu dugu. Irizpidea honako hau izan da: 18 ordu lektibo = irakasle bat). Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan EA21 programako koordinatzaileak, programa aurrera eramateko hiru ordu lektibo ditu (institutua programan sartzen den lehenengo urtean 6 orduko liberazioa du). Esan beharra dago, programa hasi zenetik 2011-2012. ikasturterarte liberazio orduak sei zirela.



19. grafikoa. Hezkuntza sailak Jasangarritasunerako hezkuntzarako liberatutako irakasle kopurua.



20. grafikoa. Hezkuntza Sailak Eskolako Agenda 21 programarako liberatutako irakasle kopurua, guztira.



## 2. ARDATZA. IKASLEEN KONPETENTZIAK

Eskola Ekobarometroaren bigarren edizioan, Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearekin (ISEI-IVEI) lankidetzan, 2013an Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleei egindako Ebaluazio Diagnostikoan (ISE-IVEI, 2014) bildutako informazioa aztertu zen. Horrek zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna eta gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna ebaluatzen zituen oraingoan.

Aukera ona zen, eta hainbat alderdiren arteko harremana ezartzea ahalbidetzen zigun. Alde batetik, PISA 2006 ebaluazioko emaitzen arabera, ezagutza eta gaitasun zientifiko hobekak dituzten ikasleek baliabideekiko eta inguruneekiko erantzukizunaren zentzu handiagoa erakusten dute, garapen jasangarriari dagokionez. Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunak, bere aldetik, jasangarritasunerako hezkuntzaren ideiarako eta praktikarako hain garrantzitsuak diren dimentsio horiek kontuan hartzea ahalbidetzen zigun.

Proban planteatutako itemen analisiak itxaropenak baieztatu zituen; izan ere, egiaztatu ahal izan genuen jasangarritasunerako hezkuntzarekiko harremanak adierazgarriak zirela. Horrela, gure ikerketaren arloarekin harreman zuzena zuten 33 item identifikatu ziren, eta indize orokor bat sortu zen jasangarritasunerako hezkuntzarekin lotuta ikasleek garatutako gaitasunak balioesteko. “Jasangarritasunerako gaitasuna” izeneko indize orokor horretan bi azpiindize identifikatu genituen: 1. azpiindizea (zientziako 14 item biltzen zituen) eta 2. azpiindizea (herritartasuneko 19 itemak biltzen zituen).

Era berean, analisi zehatzago bat egiteko, sei item-talde ezarri ziren horietan bildutako itemen ezaugarriak kontuan hartuz. Horrela, talde horiek honako hauei buruzkoak ziren: a) jarrerak eta balioak; b) harremanak ezartzea; c) kausak eta ondorioak identifikatzea; d) ezaugarri eta datu garrantzitsuak identifikatzea; e) prozesuak azaltzea, eta f) irtenbideak identifikatzea eta proposatzea. Analisi horrek zehaztutako indizearen sendotasuna erakutsi zuen, baina talde bakoitzaren itemen urritasunak (5 edo 6 item) ez du ondorio fidagarririk ateratzea ahalbidetzen.

Analisian ikastetxeen tipologia kontuan hartu da eta bi bloke ezarri dira:

- *EA21 gabekoak*: Eskolako Agenda 21 programan parte hartu ez zuten ikastetxeak.
- *EA21 dutenak*: Eskolako Agenda 21 programan parte hartzen ari ziren ikastetxeak.

Analisian sakontzeko, bigarren bloke horretan bi talde ezarri dira:

- *Ziurtagiri gabeko EA21*: Eskola Agenda 21 programan daudenak baina “eskola jasangarri” agiria ez dutenak.
- *Jasangarriak*: Eskola Agenda 21 programan daudenak eta “eskola jasangarri” agiria dutenak.

Jarraian, lortutako emaitzak erakutsiko ditugu.

## 4. adierazlea. Ikasleen kompetentziak

### 4.1. azpiadierazlea. Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako kompetentzia

14. taula. *Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna*

Zentro mota	K(1)	Batez bestekoa	Errore tipikoa	Desbideratze tipikoa
Agenda 21 gabekoa	4301	236,7	0,7	44,0
Agenda 21 duena	12742	238,09	0,6	
<i>Ziurtagiri gabeko EA21</i>	9241	237,4	0,5	44,6
<i>Ziurtagiria duen EA21</i>	3501	239,9	0,8	45,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>17043</b>	<b>237,8</b>	<b>0,34</b>	<b>44,5</b>

Ezarritako bi bloke nagusiak kontuan hartzen baditugu, estatistikoki ez dago alde handirik Eskola Agenda 21 programan parte hartzen ez duten ikastetxeen eta parte hartzen dutenen artean.

Bestalde, estatistikoki alde nabarmenak daude “eskola jasangarri” ziurtagiria duten ikastetxeen eta gainerakoen artean.

### 4.2. azpiadierazlea. Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia

15. taula. *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia*

Zentro mota	K(1)	Batez bestekoa	Errore tipikoa	Desbideratze tipikoa
Agenda 21 gabekoa	4301	244,2	0,6	41,6
Agenda 21 duena (*)	12742	246,6	0,5	
<i>Ziurtagiri gabeko EA21</i>	9241	246,0	0,4	42,3
<i>Ziurtagiria duen EA21</i>	3501	248,2	0,7	42,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>17043</b>	<b>246,0</b>	<b>0,32</b>	<b>42,2</b>

Ezarritako bi bloke nagusiak kontuan hartzen baditugu, estatistikoki alde nabarmenak daude Eskola Agenda 21 programan parte hartzen ez duten ikastetxeen eta parte hartzen dutenen artean, azken horien onurarako.

Gainera, estatistikoki alde nabarmenak daude “eskola jasangarri” ziurtagiria duten ikastetxeen eta gainerakoen artean.

### 4.3. azpiadierazlea. “Jasangarritasunerako kompetentzia”

Azpiadierazle hau definitzeko gure ikerketaren arloarekin harreman zuzena zuten 33 item hautatu ziren (14 zientzia, teknologia eta osasun kulturarako kompetentziaren probari dagozkionak, eta 19 gizarterako eta herritartasunerako kompetentziaren probari dagozkionak), eta horiekin “jasangarritasunerako kompetentzia” balioesteko indize bat ezarri da.



16. taula. *Jasangarritasunerako kompetentzia*

Zentro mota	K(1)	Batez bestekoa	Errore tipikoa	Desbideratze tipikoa
Agenda 21 gabekoa	4301	248,4	0,7	49,2
Agenda 21 duena (*)	12742	250,5	0,6	
<i>Ziurtagiri gabeko EA21</i>	9241	249,8	0,5	50,3
<i>Ziurtagiria duen EA21</i>	3501	252,4	0,8	50,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>17043</b>	<b>250,0</b>	<b>0,38</b>	<b>50,0</b>

Ezarritako bi bloke nagusiak kontuan hartzen baditugu, estatistikoki alde nabarmenak daude Eskola Agenda 21 programan parte hartzen ez duten ikastetxeen eta parte hartzen dutenen artean, azken horien onurarako.

Gainera, estatistikoki alde nabarmenak daude “eskola jasangarri” ziurtagiria duten ikastetxeen eta gainerakoen artean.

Ezarritako indizean, zientzia, teknologia eta osasun kulturarako kompetentziari dagokion probatik hautatutako itemak ere bereizita aztertu ziren. Honako hauek dira 14 item horientzat lortutako emaitzak:

17. taula. *Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako kompetentziari dagokion probatik hautatutako itemak.*

Zentro mota	K(1)	Batez bestekoa	Errore tipikoa	Desbideratze tipikoa
Agenda 21 gabekoa	4301	249,1	0,8	49,7
Agenda 21 duena (*)	12742	250,3	0,7	
<i>Ziurtagiri gabeko EA21</i>	9241	249,4	0,5	50,0
<i>Ziurtagiria duen EA21</i>	3501	252,6	0,9	50,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>17043</b>	<b>250,0</b>	<b>0,38</b>	<b>50,0</b>

Ezarritako bi bloke nagusiak kontuan hartzen baditugu, estatistikoki ez dago alde handirik Eskola Agenda 21 programan parte hartzen ez duten ikastetxeen eta parte hartzen dutenen artean.

Bestalde, estatistikoki alde nabarmenak daude “eskola jasangarri” ziurtagiria duten ikastetxeen eta gainerakoen artean.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren probari dagozkion 19 itemak aztertzen baditugu, hauek dira emaitzak:

18. taula. Gizarterako eta herritartasunerako kompetenziaren proban hautatutako itemak.

Zentro mota	K(1)	Batez bestekoa	Errore tipikoa	Desbideratze tipikoa
Agenda 21 gabekoa	4301	248,3	0,8	49,7
Agenda 21 duena (*)	12742	250,6	0,6	
Ziurtagiri <b>gabeko</b> EA21	9241	250,1	0,5	50,1
Ziurtagiria <b>duen</b> EA21	3501	251,8	0,8	50,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>17043</b>	<b>250,0</b>	<b>0,38</b>	<b>50,0</b>

Ezarritako bi bloke nagusiak kontuan hartzen baditugu, estatistikoki alde nabarmenak daude Eskola Agenda 21 programan parte hartzen ez duten ikastetxeen eta parte hartzen dutenen artean, azken horien onurarako.

Estatistikoki, ez dago alde nabarmenik “eskola jasangarri” ziurtagiria duten ikastetxeen eta, programan parte hartu arren, “eskola jasangarri” ziurtagiria ez duten ikastetxeen artean.



## 5. adierazlea. Ikasleen iritziak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleei egindako 2013ko Ebaluazio Diagnostikoaren proban, galdera batzuk erantsi ziren ikasleen iritziak jakiteko hiru gairen inguruan:

- 1.1. Ingurumen-arazoei buruzko informazioa (ezagutza-maila).
- 1.2. Ingurumenaren aldeko norberaren ekintzak.
- 1.3. Ingurumenaren aldeko ekintzak ikastetxeetan.


Jarraian, lortutako emaitzak erakutsiko ditugu.

### 5.1. azpiadierazlea. Ingurumen-arazoen ezagutza-maila

Emandako erantzunen arabera, ezagutza-maila nahiko desberdina da gaiaren arabera. Honako arazo hauei buruz dute informazio gehien: klima-aldaketari, airearen kutsadurari, eta espezieen desagertzearen eta habitaten eta ekosistemen suntsipenari buruz.

Horien ezagutza-maila altua da (% 78,94k, % 78,83k eta % 74,09k, hurrenez hurren, adierazi du arazoa zerbait edo nahiko ondo ezagutu eta azaldu dezakeela). Bestalde, gutxien ezagutzen dituztenak deforestazioa eta basamortutzea eta lurrak galtzea dira; izan ere, hurrenez hurren, % 37,89k eta % 38,61ek adierazi du arazoa zerbait edo nahiko ondo ezagutu eta azaldu dezakeela).

21. grafikoa. *Ingurumen-arazoen ezagutza-maila (globala)*



AE21 programan parte hartzen duten eta parte hartzen ez duten ikastetxeen arteko aldeak kontuan hartzen baditugu, kasu guztietan (kutsadura akustikoaren kasuan izan ezik) programan parte hartzen duten ikastetxeetako ikasleek ezagutza-maila altuagoa erakusten dute. Hala ere, aldeak ez dira nabarmenak (alde handiena % 39,20ren eta % 36,96ren artekoa da, “desertizazioa eta lurrak galtzearen” kasuan).


EA21 programan parte hartzen duten ikastetxeen artean, eskola jasangarriko ziurtagiria duten ikastetxeak kontuan hartzen baditugu, ikastetxe jasangarrietako ikasleek ezagutza-maila altuagoa erakusten dute kasu guztietan. Taula erantsian ehunekoak daude bilduta:

19. taula. *Ingurumen-arazoen ezagutza-maila (globala)*


Ingurumen-arazoak	Arazoen ezagutza-maila (arazoa zerbait edo nahiko ondo ezagutu eta azaldu dezakeela adierazten dutenen %)			
	EA21 gabeko ikastetxeak	EA21 duten ikastetxeak	Ziurtagirik ez dutenak	Ziurtagiria dutenak
Klima-aldaketa	77,44	79,48	78,87	81,15
Deforestazioa	36,44	38,39	38,18	38,99
Desertizazioa eta lurrak galtzea	36,96	39,20	38,89	40,05
Hondakin nuklearrak	48,18	50,52	50,39	50,90
Airearen kutsadura	77,59	79,29	78,69	80,94
Espezieak desagertzea eta habitata eta ekosistemak suntsitzea	73,24	74,40	74,02	75,46
Baliabide naturalak agortzea (petrolio, arrantza, mineralak...)	66,20	67,69	67,20	69,03
Kutsadura akustikoa (zarata)	50,20	49,98	49,52	51,24
Zaborren tratamendua (beira, papera, kartoia, plastikoak, tetrabrikak...)	61,10	63,82	63,25	63,58
Kontsumismoa eta baliabideak xahutzea	54,39	56,82	56,68	57,20
Pobrezia eta baliabideak banatzea	71,11	73,47	73,26	74,04



22. grafikoa. Ingurumen-arazoek ezagutza-maila (EA21 gabekoa / EA21 duena)



23. grafikoa. Ingurumen-arazoek ezagutza-maila (Agenda 21 gabekoa / Agenda 21 duena, ziurtagiririk gabekoa / Agenda 21 duena eta ziurtagiria duena)




## 5.2. azpiadierazlea. Ikasleek ingurumenaren alde egindako ekintzak

Honako hauek dira ikasleek adierazitakoaren arabera gehien egiten dituzten ingurumenaren aldeko ekintzak:

- Lehenik: “argiak eta berogailua itzaltzea behar ez ditudanean” (% 80,55ek adierazi du sarri edo beti egiten duela).
- Bigarrenik: “ura ez xahutzen saiatzen naiz” (% 75,69k adierazi du sarri edo beti egiten duela).
- Hirugarrenik: “erabiltzen ditudan espazio publikoak (parkeak, kaleak, ikasgelak edo pasabideak) zaintzen ditut” (% 71,75ek adierazi du sarri edo beti egiten duela).
- Gutxiagotan agertzen dira “papera, kartoia, beira, plastikoak eta beste hondakin batzuk birziklatzen ditut” (% 65,62) eta “tabakoaren kerik eta zaratarik gabeko lekuetara joaten naiz” (% 56,03) adierazpenak.

24. grafikoa. *Ikasleek ingurumenaren alde egindako ekintzak (globala)*




Ikastetxe motak kontuan hartzen baditugu, taula erantsian agertzen diren ehunekoak lortuko ditugu:

20. taula. Ikasleek ingurumenaren alde egindako ekintzak


Ekintzak	Ekintzen maiztasuna (sarri edo beti egiten dituela adierazten dutenen %)			
	EA21 gabeko ikastetxeak	EA21 duten ikastetxeak	Ziurtagiririk ez dutenak	Ziurtagiria dutenak
Argiak eta berogailua itzaltzen ditut behar ez ditudanean	79,90	80,78	80,89	80,46
Ura ez xahutzen saiatzen naiz	74,92	75,96	75,87	76,21
Papera, kartoia, beira, plastikoak eta beste hondakin batzuk birziklatzen ditut	65,89	65,53	65,06	66,83
Erabiltzen ditudan espazio publikoak zaintzen ditut (parkeak, kaleak, ikasgelak, pasabideak...)	70,82	72,08	71,84	72,77
Tabakoaren kerik eta zaratarik gabeko lekuetara joaten naiz	56,25	55,95	56,17	55,31

25. grafikoa. Ikasleek ingurumenaren alde egindako ekintzak (Agenda 21 duena / Agenda 21 gabekoa)



26. grafikoa. Ikasleek ingurumenaren alde egindako ekintzak (Agenda 21 gabekoa / Agenda 21 duena, ziurtagiririk gabekoa / Agenda 21 duena eta ziurtagiria duena)





### 5.3. azpiadierazlea. Ikastetxean ingurumenaren alde egindako ekintzak

Ikasleek ikastetxeetan hautemandako jarrerei dagokienez:

Lehenik eta behin, “gure ikastetxean papera eta kartoia birziklatzeko edukiontzia daude” dago (% 86,19k dio daudela).


Bigarrenik: “gure ikastetxean zarataren maila txikitzeko eskatzen digute behin eta berriz” (% 80,39 nahiko ados edo oso ados dago baieztapen horrekin).

Hirugarrenik: “behar duten pertsoneri laguntzeko kanpainak egiten dira ikastetxean” (% 76,25ek baieztatzen du).

Laugarrenik: “ikastetxean dena garbi eta ondo zainduta egoteko kezka dago” (% 75,24 nahiko ados edo oso ados dago baieztapen horrekin).

Atzerago daude “behar ez direnean, argiak itzaltzeko errepikatzen digute gure ikastetxean” (% 63,56rekin) eta “ikastetxean ura ez xahutzeko kezka handia dago” (% 58,99).

27. grafikoa. Ikastetxean ingurumenaren alde egindako ekintzak (globala)




Ikastetxe motak kontuan hartzen baditugu, taula erantsian agertzen diren ehunekoak lortuko ditugu.


21. taula. Ikastetxean ingurumenaren alde egindako ekintzak

Ekintzak	Ekintzen maiztasuna (sarri edo beti egiten dituela adierazten dutenen %)			
	EA21 gabeko ikastetxeak	EA21 duten ikastetxeak	Ziurtagirik ez dutenak	Ziurtagiriak dutenak:
Ura ez xahutzeko kezka handia dago	52,24	61,62	58,98	68,09
Behar ez direnean argiak itzaltzeko errepikatzen digute	55,51	66,46	65,02	70,24
Dena garbi eta ondo zainduta egoteko kezka dago	72,64	76,17	75,38	78,32
Zarataren maila txikitzeko eskatzen digute behin eta berriz	79,67	80,66	80,12	82,15
Papera eta kartoia birziklatzeko edukiontziak daude	80,84	88,15	86,56	92,37
Pertsonei laguntzeko kanpainak egiten dira	71,02	78,16	76,67	82,09

28. grafikoa. Ikastetxean ingurumenaren alde egindako ekintzak (EA21 gabe / EA21 duena)



29. grafikoa. Ikastetxean ingurumenaren alde egindako ekintzak (Agenda 21 gabekoa / Agenda 21 duena, ziurtagiririk gabekoa / Agenda 21 duena eta ziurtagiria duena)



## Ondorioak

### **Eskolako Agenda 21 programaren partaidetzan**

Eskola Ekobarometroaren azterlan-aldi honetan (2008-2016), EA21eko programa duten ikastetxeak nahiz eta gutxi gora behera mantendu, portzentaian pixka bat beherantz joan dela esan dezakegu. Honen harira, aipatu beharra dago estatistiketan urtero EAEn dagoen derrigorrezko hezkuntza duten ikastetxe kopurua zenbatzea, ez dela erraza, ikastetxe gehienak derrigorrezkoa den irakaskuntza baino gehiago dutelako.

Dena den, nabarmena da aipatzea, nahiz eta ikastetxe kopurua berdin antzeko gorabeheretan ibili, programan parte hartzen duen ikasle kopuruak, guztira, gorantz egin duela.

Etapaka gehien bat derrigorrezko hezkuntzakoek parte hartzen dute, lehen hezkuntza eta DBHkoek, azken baten horientzat baitago programa definituta.

Irakasle kopurua dela eta, nahiz eta hiru urtetan EA21en parte hartu duten irakasle kopuruaren daturik ez izan, ikus dezakegu honetan gorakada izan dela.

Bestalde, “eskola jasangarri ziurtagiria ” duten ikastetxeen kopurua handituz joan da, eta lortzen dutenen artean gehienek berritu dute.

### **Jasangarritasunaren hezkuntzaren beste proiektu batzuk**

Gaur egun JH lantzeko hainbat ekimen gehiago daudela esan beharra dago, nabarmenki aipatzekoa Aztertu programa, 25 urte daramatzana, eta ikus dezakegunez urterik urtera partaidetza mantendu egiten dena.

Arrano arrantzalearen ekimenena dela eta, duela bi urte Urdaibaien sortutako ideia, Gipuzkoara, Txingudin, eta aurten Arabara ere hedatuz joan da. Partaide kopurua mugatua da eta urtero bete da.

### **Irakasleen prestakuntza**

Irakasleek Jasangarritasunerako hezkuntzaren alorrean duten prestakuntzari dagokionez, jarduera-kopurua, hasieran zegoenetik beharakadaxoa eman dela ikus dezakegu, alde batetik, hasieran EA21 programa berria izanik prestakuntza gehiago eskatzen zuelako, eta bestetik, ordutegi barruan prestakuntza garatzeko ordezkotako irakasleak esleitzen ziren. Dena den, azken urteetan berriro gorantz egin du, nahiz eta PREST\_GARako ikastaro gutxiago eskaini, betiere PREST-GARaren filosofiak ikastetxe/klaustruko formakuntza lehenarazten baitu.

Irakasleen prestakuntza orduak direla eta, nabarmena da ordu gehien PREST\_GARA ikastaroetara dedikatuta daudela, ikastaro hauek 30 ordukoak direlako, eta aldiz, ikastetxeko klaustroei emandako prestakuntza 10 ordu baino gutxiagokoa izaten da. Baina, argi ikusten da, irakasle kopuru handiagoak jasotzen duela prestakuntza ikastetxeetan, hau da, irakasle gehiagotara heltzen gara ikastetxeko prestakuntzan. Horrez gain, prestakuntza horrekiko balioespina oso ona izan dela esan dezakegu.

## **Jasangarritasunaren hezkuntzarako baliabideak**

Eusko Jaurlaritzak ematen dituen baliabideak direla eta, nabarmena da, azken urteetan izandako krisialdia dela eta, Ingurumen Sailak ematen diru-laguntzen jaitsiera eta baita Hezkuntza Sailak esleitutako pertsonalaren jaitsiera ere, batez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza publikoko EA21 koordinatzaileen liberazio orduetan. Aipatzekoa da, Ihitza aldizkaria argitaratzeko diru jaitsiera, 2013tik aurrera paperean ez delako editatzen dela.

Laburbilduz, 2016ko Eskola Ekobarometroaren 1. ardatzarekin (hezkuntza-sistema) zerikusia duten adierazleen bidez lortutako informazioak agerian utzi du Jasangarritasunerako hezkuntzak EAEko Hezkuntza Sistemaren duen presentzia eta garapena mantenduz doala, nahiz eta aurrekontuetan beherakada nabarmena izan, Ingurumen eta Hezkuntza Sailak baliabideekin jarraitzeko egindako esfortzuagatik, eta batez ere Hezkuntza komunitate eta Udalen inplikazioagatik.

## **Ikasleen kompetentziak**

Ikasleen kompetentzietan dagokionez, hiru ebaluatu dira: Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako kompetentzia, Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia, eta “Jasangarritasunerako kompetentzia”.

Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako kompetentzian, ezarritako bi bloke nagusiak kontuan hartzen baditugu, estatistikoki ez dago alde adierazgarririk Eskola Agenda 21 programan parte hartzen ez duten ikastetxeen eta parte hartzen dutenen artean. Bestalde, estatistikoki alde adierazgarriak daude “eskola jasangarri” ziurtagiria duten ikastetxeen eta gainerakoen artean.

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian, ezarritako bi bloke nagusiak kontuan hartzen baditugu, estatistikoki alde adierazgarriak daude Eskola Agenda 21 programan parte hartzen ez duten ikastetxeen eta parte hartzen dutenen artean, azken horien onurarako. Gainera, estatistikoki alde nabarmenak daude “eskola jasangarri” ziurtagiria duten ikastetxeen eta gainerakoen artean.

“Jasangarritasunerako kompetentzian”, ezarritako bi bloke nagusiak kontuan hartzen baditugu, estatistikoki alde adierazgarriak daude Eskola Agenda 21 programan parte hartzen ez duten ikastetxeen eta parte hartzen dutenen artean, azken horien onurarako. Gainera, estatistikoki alde nabarmenak daude “eskola jasangarri” ziurtagiria duten ikastetxeen eta gainerakoen artean.

## **Ikasleen iritziak**

Ikasleek adierazitako ingurumen-arazoaren ezagutza-mailari dagokionez, nabarmen aldatzen da arazo batetik bestera; “klima-aldaketa” da ezagunena eta “deforestazioa” gutxien ezagutzen dutena.

Oro har, Eskola Agenda 21 programa duten ikastetxeetako ikasleek ingurumen-arazoak hobeto ezagutzen dituztela adierazten dute, Eskola Agenda 21 programa ez duten ikastetxeetako ikasleek baino. Eskola Agenda 21 dutenen artean, ikastetxe jasangarrietako ikasleek adierazitako ezagutza hobea da, aitorpen hori ez duten ikastetxeetako ikasleena baino. Aldeak, edozein kasutan, ez dira oso nabarmenak.

Ikasleek ingurumenaren alde egindako ekintzei dagokionez, “argiak eta berogailua itzaltzen ditut behar ez ditudanean” da maiztasun handiena duena eta “tabakoaren kerik eta zaratarik

gabeko lekuetara joaten naiz” da maiztasun txikiena duena. Oro har, Eskola Agenda 21 programa duten ikastetxeetako ikasleek maiztasun handiagoz egiten dituztela adierazten dute, Eskola Agenda 21 programa ez duten ikastetxeetako ikasleek baino. Eskola Agenda 21 dutenen artean, ikastetxe jasangarrietako ikasleek adierazitako maiztasuna handiagoa da, aitorten hori ez duten ikastetxeetako ikasleena baino.

Ikastetxeetan ingurumenaren alde egindako ekintzei dagokienez, ikasleentzat ohikoena “gure ikastetxean papera eta kartoia birziklatzeko edukiontziak daude” da, eta maiztasun txikiena duena “ikastetxean ura ez xahutzeko kezka handia dago” da. Kasu guztietan, ekintzen maiztasuna handiagoa da Eskola Agenda 21 programan parte hartzen duten eta “eskola jasangarri” ziurtagiria duten ikastetxeetan. Ondoren, Eskola Agenda 21 egiten duten ikastetxeak daude (baina ziurtagiririk gabekoak), eta, azkenik, programan parte hartzen ez duten ikastetxeak.


### Hurrengo edizioetarako gomendioak

Komeniko litzateke 2015eko Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzak aztertzea (proba 2013an erabilitakoaren berdina izan zen), proba honetan lortutako emaitzak baieztatzen diren jakiteko.

Gainera, interesgarria izan daiteke Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleei egindako Ebaluazio Diagnostikoan jasotako informazioa aztertzea, antzeko emaitzak dauden ikusteko.

Lortutako emaitzen arabera, eskola jasangarriko ziurtagiria duten ikastetxeen eta gainerakoen artean dago alde handiena. Interesgarria izango litzateke “balio erantsi handiko ikastetxeen” jokaera aztertzea (ISEIk egindako ikerketa) eta ikustea zer harreman dauden.

Bestalde, uste dugu beharrezkoa dela inkesta edo galdetegiren bat egitea hainbat gairi buruzko informazioa biltzeko, bereziki irakasleek Ingurugelarekiko duten ezagutza-mailari eta harremanari buruzkoa 4. adierazlea).



# LABURBILDUZ...

## 1. ARDATZA: Hezkuntza-sistema

- EA21 programak 13 urte bete ditu. EA21eko programa duten ikastetxe kopurua gutxi gora behera mantendu da % 60an . Ikastetxe kopuruaren portzentajea pixka bat beherantz joan dela esan dezakegu, dena den programan parte hartzen duen ikasle kopuruak, guztira gorantz egin du (2015-2016 ikasturtean 225.812 ikasle).
- Etapaka gehien bat derrigorrezko hezkuntzakoek parte hartzen dute, lehen hezkuntza eta DBHkoek, azken baten horientzat baitago programa definituta.
- Parte hartzen duten irakasle kopuruak gora egin du. (2015-2016 ikasturtean 28.474 irakasle).
- 2007an sortutako “Eskola jasangarri ziurtagiria ” duten ikastetxeen kopurua handituz joan da, (2016an 94), eta lortzen dutenen artean gehienek berritzen dute (agiria lau urtetik lau urtera berritu behar da).
- Irakasleen prestakuntza orduak direla eta, nabarmena da ordu gehien bakarkako prestakuntzara, hau da, PREST\_GARA programako ikastaroetara dedikatuta daudela, ikastaro hauek 30 ordukoak direlako, baina irakasle kopurua kontuan harturik klaustroetan ematen den prestakuntza handiagoa da.
- Irakasleek ikastaroei ematen dieten balorazioa oso altua da, ( 5etik, 4tik gora)
- Krisialdia dela eta, Ingurumen Sailak ematen duen diru-laguntzaren kopuruaren jaitsiera eta baita Hezkuntza Sailak esleitutako giza baliabideen jaitsiera egon da, hala ere, ikastetxeen inplikazioa jasangarritasun hezkuntza garatzeko mantendu egin da.

## 2. ARDATZA. Ikasleen konpetentziak

- Ebaluatutako ikasleen konpetentziei dagokienez (zientzia, teknologia eta osasun kulturarako konpetentzia, gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia, eta “jasangarritasunerako konpetentzia”), emaitzarik onenak “Eskola Jasangarri” ziurtagiria duten ikastetxeek lortzen dute.  
Eskola Agenda 21 programan dauden beste ikastetxeek ere konpetentzia horietan programan ez daudenak baino emaitza hobetoak lortzen dituzte.
- Eskola Agenda 21 programa duten ikastetxeetako ikasleek ingurumen-arazoak hobeto ezagutzen dituztela ondorioztatu da. Eskola Agenda 21 dutenen artean, “eskola jasangarrietako” ikasleek adierazitako ezagutza hobea da, aitorpen hori ez duten ikastetxeetako ikasleena baino.

## Dokumentuan erabili diren taulen aurkibidea

1. *Taula. 2008-2016. Eskola Agenda 21 programa duten ikastetxeen kopurua.*
2. *taula: 2008-2016. Eskola Agenda 21 proiektua izan eta "Eskola jasangarriak" direnak.*
3. *taula. EA21 proiektuetan parte hartzen duten irakasleen ehunekoa.*
4. *taula: EA21proiektuan parte hartzen duten ikasleen ehunekoa, EAEko ikasle-kopuru guztiarekiko.*
5. *taula. EA21programan parte hartzen duen ikasle-kopurua, hezkuntza-etapa bakoitzeko.*
6. *taula. 2008-2016. Aztertu kanpainan parte hartu duten ikastetxe eta ikasle kopurua*
7. *taula. "Arrano arrantzalearen" proiektuan parte hartu duten ikasle eta irakasle kopurua.*
8. *taula. Irakasleek Jasangarritasunerako hezkuntzan prestatzeko izan duten jarduera-kopurua.*
9. *taula. Irakasleen prestakuntza-orduak jasangarritasunerako hezkuntzan.*
10. *taula. Jasangarritasunerako hezkuntzako ikastaroetan parte hartu duten irakasle kopurua.*
11. *taula. Jasangarritasunerako hezkuntzako prestakuntza-ikastaroei buruzko balioespena.*
12. *taula. Ingurumen sailak emandako diru kopurua.*
13. *taula. Hezkuntza Sailak esleitutako pertsona kopurua.*
14. *taula. Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna*
15. *taula. Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia*
16. *taula. Jasangarritasunerako konpetentzia*
17. *taula. Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako konpetentziari dagokion probatik hautatutako itemak.*
18. *taula. Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziaren proban hautatutako itemak.*
19. *taula. Ingurumen-arazoen ezagutza-maila (globala)*
20. *taula. Ikasleek ingurumenaren alde egindako ekintzak*
21. *taula. Ikastetxean ingurumenaren alde egindako ekintzak*



## Dokumentuan erabili diren grafikoen aurkibidea

1. grafikoa. *Eskola Agenda 21 proiektua duten ikastetxe kopurua*
2. grafikoa. *Eskola Agenda 21 proiektuan parte hartzen duten zentroyen ehunekoa, ikasturteko.*
3. grafikoa: *Ikasturte bakoitzean eskola jasangarriaren agiria duten ikastetxeen kopurua.*
4. grafikoa: *Eskola Agenda 21 programa izan eta "Eskola jasangarriaren" agiria lortu duten ikastetxeen ehunekoa.*
5. grafikoa. *EA21 proiektuan parte hartzen duten irakasleen kopurua.*
6. grafikoa. *EA21 proiektuetan parte hartzen duten irakasleen ehunekoa, irakasle guztiekiko.*
7. grafikoa. *EA21en parte hartzen duten ikasleen kopurua.*
8. grafikoa. *EA21 proiektuan parte hartzen duten ikasleen ehunekoa, EAEko ikasle-kopuru guztiarekiko.*
9. grafikoa. *EA21 proiektuan parte hartzen duten ikasleak etapaka eta ikasturteka banatuta.*
10. grafikoa. *Ikastetxe kopurua Azterkosta eta Ibaialde, Aztertu programan*
11. grafikoa. *Ikasle kopurua Azterkosta Ibaialde.*
12. grafikoa. : *Eskainitako prestakuntza kopurua jarduera motaren arabera.*
13. grafikoa: *Guztira irakasleek jasangarritasunerako hezkuntzan prestatzeko jarduera-kopurua.*
14. grafikoa. *Irakasleen prestakuntza-orduak jasangarritasunerako hezkuntzan.*
15. grafikoa: *Irakasleen prestakuntza-orduak, guztira.*
16. grafikoa. *Ingurumen-hezkuntzako ikastaroetan parte hartu duten irakasle kopurua.*
17. grafikoa. *Jasangarritasunerako hezkuntzako ikastaroetan parte hartu duten irakasleak, guztira.*
18. grafikoa. *Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak EA21 programa garatzeko ikastetxeei emandako diru kopurua.*
19. grafikoa. *Hezkuntza sailak Jasangarritasunerako hezkuntzarako liberatutako irakasle kopurua.*
20. grafikoa. *Hezkuntza Sailak Eskolako Agenda 21 programarako liberatutako irakasle kopurua, guztira.*
21. grafikoa. *Ingurumen-arazoen ezagutza-maila (globala)*

22. *grafikoa. Ingurumen-arazoaren ezagutza-maila (EA21 gabekoa / EA21 duena)*

23. *grafikoa. Ingurumen-arazoaren ezagutza-maila (Agenda 21 gabekoa / Agenda 21 duena, ziurtagiririk gabekoa / Agenda 21 duena eta ziurtagiria duena)*

24. *grafikoa. Ikasleek ingurumenaren alde egindako ekintzak (globala)*

25. *grafikoa. Ikasleek ingurumenaren alde egindako ekintzak (Agenda 21 duena / Agenda 21 gabekoa)*

26. *grafikoa. Ikasleek ingurumenaren alde egindako ekintzak (Agenda 21 gabekoa / Agenda 21 duena, ziurtagiririk gabekoa / Agenda 21 duena eta ziurtagiria duena)*

27. *grafikoa. Ikastetxean ingurumenaren alde egindako ekintzak (globala)*

28. *grafikoa. Ikastetxean ingurumenaren alde egindako ekintzak (EA21 gabe / EA21 duena)*

29. *grafikoa. Ikastetxean ingurumenaren alde egindako ekintzak (Agenda 21 gabekoa / Agenda 21 duena, ziurtagiririk gabekoa / Agenda 21 duena eta ziurtagiria duena)*